- *¿El grupo de gobierno ha pensado en realizar alguna propuesta para el 8 de marzo? ¿cree oportuno el ayuntamiento el realizar una concentración para reivindicar el día internacional de la mujer?*

Al grupo municipal de EH BILDU ERROIBAR le gustaría recibir todas estas respuestas también por escrito.

Además, nos parece importante que se nos facilite información de todo aquello que preguntamos, si es necesario facilitando documentos que validen las respuestas que el grupo de gobierno nos dé. Es a su vez importante que la respuesta y los documentos se nos envíen mediante correo electrónico, creyendo que sería un gasto innecesario el imprimir los documentos e información requerida.

Esker anitz.”

Y sin más asuntos que tratar siendo las 21,30 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2018ko otsailaren 21ean, 18:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apesteguía, Álvaro Villanueva Azcarate, Miguel Echamendi Hernandez, Joaquín María Martínez Choperena, Joseba Martínez Rey eta Eduardo Urtasun Vidondo. Bilkuraburu, alkatea, Enrique Garrada Erro izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gai zerrendako lehenengoari ekin baino lehen EHBildu taldeko zinegotziak, Martínez Rey, jakinarazi du bilkura grabatu behar duela.

1.- 2017KO ABENDUAREN 13KO ETA 29KO ETA 2018KO URTARRILAREN 15EKO BILKUREN AKTEN ONESPENA

Aho batez erabaki da 2017ko abenduaren 13ko eta 29ko eta 2018ko urtarrilaren 15eko bilkuren aktak onartzea.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta denetariko informazioaren puntuak, Amma Ibañetako Zahar Egoitzaz ari denean, argi utzi nahi du esan zuena, ekonomikoki parte hartzen duten Udalak Erroibar eta Orreagakoa direla.

2.- 2017ko ABENDUAREN 6tik 2018ko OTSAILAREN 16a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Garralda jnk., 2017ko abenduaren 6tik 2018ko otsailaren 16a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Udalkideak jakitun dira.

Urtasun zinegotziak eskatu du bereizketa baten lizentziari eta egin zaion errekerimenduari dagokion 195 ebazpena argitzea. Alkateak, Garralda jk., erantzun du legea aldatu dela eta 2017tik bereizketak onartu baino lehen Lurraldearen Aberastasuneko Zerbitzuaren txostena

behar dela, jardueraren eremu geografikoaren perimetroari buruzkoa, uztailearen 26ko 1/2017 Foru Dekretu Legegilearen Hamaseigarren Xedapen Gehigarrian dioen moduan.

Modu berean eskatu du Aurizberriko planeamenduaren aldaketari dagokion 4/2018 ebazpenaren gaineko azalpenak ematea, eta esan zaio behin behinean onetsi baino lehen errekerimendua egin zitzaiola Nafarroako Gobernuak eta Udalak eskatu zizkioten hainbat gai argitzeko.

Azkenik eta Loizuko elizako konponketari dagokion 12/2018 ebazpenari buruz, jakinarazi da Comal Eraikuntzak eliza berritzeko eskaera egin zuela, baina aurkeztutako dokumentazioa nahikoa ez zenez proiektua aurkeztea beharrezkoa da. 27/2018 ebazpena Ibararte kirol klubari egindako likidazioa da, gastuak frogatu zituztenean diru-laguntzaren %100 eman zitzaien eta gastuekin bat egiten duenez, ez da zenbatekorik kitatu behar. Beste gauza bat da ematen zaien diru-laguntza eta parte hartzen duten haurren kopurua proportzionalak ez izatea.

3.- SOROGAINGO BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUAREN ARAUAK 2018. URTERAKO

Batzordeak egindako bileraren ondoren, Udalbatzak erabaki du aho batez Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamenduaren honako arauak onartzea 2018rako:

1.- Frantses ardi-azienda sartzeko debekua mantentzea 2018. urtean.

2.- Frantses eta kanpoko zaldi-azienda sartzeko debekua mantentzea.

3.- Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamendu arau hauek onartzea 2018rako:

3.1. Aziendaren antolamendua:

- a) Azienda apirilaren 5etik aitzina sartuko da Arbilletan.
- b) Debekaturik dago data hori baino lehen azienda sartzea Sorogaingo bazkalekuetan.
- c) Maiatzaren 12an ibarreko aziendaren marka egingo da eta ezkerraldea zabalduko da.
- d) Maiatzaren 12tik 26ra Arbilletako eremua errespetatuko da.

3.2. Udalak, egoerak hala eskatuta, aziendaren antolamendua aldatu ahalko du.

4.- Sorogaingo bazkalekuen aprobetxamenduaren 2018ko kanonak honakoak izatea:

a) Ibarreko azienda:

Behi-azienda	33,00 €
Zaldi-azienda	43,00 €
Ardi-azienda(Maiatza)	4,30 €
Ardi-azienda (Uztaila)	2,15 €
Ahuntz-azienda	4,50 €

b) Frantses-azienda:

Behi-azienda	71,00 €
--------------	---------

c) Kanpoko azienda:

Behi-azienda	71,00 €
--------------	---------

5.- Debekuak:

- a) Aurizko arrazakoak ez diren garañoak sartzea debekatzea
- b) Idiskoak eta zezenak sartzea debekatzea

6.- Aziendaren markak ondoko toki eta ordutegian egingen dira:

- Udaberriko marka: 2018ko maiatzaren 12an, Sorogaingo korlean, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 14:00etara.

- Urepeleko marka: 2018ko maiatzaren 26an, Urepelen, goizeko 10:00etatik aitzina.

7.- Marka Egunetan markatzen ez diren azienda guztiak ostiraletan bakarrik markatu ahalko dira Sorogaingo eskortan (etxearen ondokoan), 8:00etatik 14:00etara. Kasu horietan %10 gehiago ordainduko dute. Modu berean azienda aldaketak egiten dutenei %10 gehiago kobratuko zaie.

8.- Sorogainen bazkatzera sartuko diren azienten jabeek horien legezko osasun ziurtagiriak

aurkeztu beharko dituzte bazkalekuetara sartu baino lehen.

9.- Sorogainen azienda sartzeko interesa duten Erroibarko bizilagunek izena eman beharko dute udaletxean urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen.

Ordaintzeko baldintzak: Sorogainen sartutako azientari dagokion diruaren %50 aurtengo apirilaren 30a baino lehen ordainduko da. Odainketa hori azienda sartu baino lehen egingen da. Gainerako %50 aurtengo uztailearen 31 baino lehen ordainduko da.

Aipatutako zenbatekoak ordaintzen ez dituenari Udalak ez dizkio PAC delakoarentzako hektarearik ziurtatuko eta hurrengo urtean ezinen du azientarik sartu Sorogainen.

Uztailean sartuko den azientaren kanon osoa aurtengo abuztuaren 31 baino lehen ordaindu beharko da.

10.- Baigorriko Sindikatuak Sorogainen sartuko den azientaren zerrenda aurkeztu beharko du, baita dagokien kanona ordaindu izanaren agiria ere, maiatzaren 10a baino lehen.

11.- Urepeleko Markaren egunean Sorogainen sartuko den frantses azientaren %75 gutxienez oinez sartu behar da; gainontzekoa kamioietan sartu ahalko da Baigorriko Sindikatuak baimendu ondoren.

12.- Udaberriko markan Sorogainen bazkatzera sartuko diren ibarreko azientak, data hori baino lehen ere sartu ahalko dira, baina Arbilleta eremuan bakarrik. Azienda horiek Marka Egunean korlera jaitsi beharko dira nahitaez.

Modu berean, marka eguna ez den beste egun batean azienda sartuko duten Erroibarko eta Frantziako abeltzain guztiek, ezarritako kanonaren %20ko errenergua ordaindu beharko dute. Kasu horietan ezingo da inolako arrazoi justifikaturik alegatu.

13.- Sorogainen sartu ahal den azienda kopurua baino gutxiago sartuko balitz, uztailearen 15etik aitzina Udalak aukera emango die lehenengo Ibarreko abeltzainei, eta, ondoren, kanpokoei, uztailearen 15etik aitzina azienda belar-erdira sartzeko. Kasu horretan ordainduko den kanona denboraldi osoari dagokionaren %50 izango da.

14.- Abeltzain bakoitzak gehienez ere 80 UGM sartu ahalko du.

15.- Sorogainera azienda eramaten duten aldioro abeltzainek algoazilari abisatuko diote, bazkalekuak behar bezala kontrolatzeko.

16.- Irailaren 1etik aitzina sartuko den ardi-azienda buru bakoitzeko 1,3 euro kobratuko da.

17.- Marka egunean ez da azientarik markatuko gurdien barnean.

Bazkalekuen ongarriri dagokionez, Martinez Rey zinegotziak proposatu du kimikoak ez diren ongarrri minerala eta karea erabiltzea, eta Juanarena zinegotziak erantzun dio hori dela erabiltzen dena eta Martinez zinegotziak dio berak ongarrri ekologikoaz ari dela, badakielako Baztanen hori erabiltzen dutela bazkalekuetan. Juanarena zinegotziak erantzun dio Garraldan bazkalekuen zati batean ongarrri horri botatzen dutela baina errendimendua askoz ere txikiagoa dela.

Eztabaidaren ondoren erabaki da gaia abeltzainekin egingen den bileran mahaigaineratzea eta INTIArekin ere kontsulta egitea.

Azkenik, Batzordean urtero egin ohi diren lanez mintzatu da: maukaren olak aldatzea, berrikustea, zer behar den zehaztea, garbiketa egitea, Odiako bidean erori den zuhaitza kentzea,azienda biltzeko hertsia, zaborra biltzea, erreka atakak, askaltokien kartelak, Bidausi Mankomunitateari plastikozko 2 edukiontzi jartzea eskatzea, etab.

4.- 2018ko BASO JARDUEREN BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta baso jardueren deialdiari dagokionez, jakinarazi du ebatzi dela eta jarduera hauek onartu direla: Laurentxiko basoberritzea, Zelaieta, Sorogain, Arbilleta eta Measkoitzeko bideak egonkortzea, eta sasi-garbiketak; lan horien guztien aurrekontua 74.334,18 euro gehi BEZa da; emandako diru-laguntzaren barnean Sorogaingo bidea ondoratzeagatik egin beharreko lanak sartu ziren, baina horretarako diru-laguntza jaso zenez, jakinarazi beharko zaie oraingo laguntzatik kentzeko. Horiek horrela, proposatu du EKILANek prestatu duen baso jardueren proiektua egitea, gastua eta lanak adjudikatzeko baldintzen pleguak onetsiz; kasu honetan eta egin beharreko lanen ezaugarriak zein behar den makineria kontuan hartuta, bi adjudikazio egitea proposatu du, alde bateik bideak eta basoberritzeak eta bertzetik sasi-garbiketak. Modu berean, bideen eta basoberritzeen kasuan jarraitu beharreko prozedura irekia izango litzateke eta kontratazio atarian argitaratua, eta aplikatu beharreko irizpide ekonomikoez gain teknikoak ere, eta sasi-garbiketei dagokienez prozedura publizitaterik gabeko prozedura negoziatua, eta jarraitu beharreko irizpide bakarra prezioarena. Egin beharreko lanetan adituak diren eskualdeko enpresei gonbidapena igorriko zaie.

Guztiak ados egonik, aho batez erabaki da Ekilane egindako proiektuan aipatutako gastua onartzea, egin beharreko lanen adjudikazioa arautuko duten baldintzen pleguak onartzea eta, sasi-garbiketen kasuan, enpresa hauei gonbidapena igortzea: Zibur, Desbroces Berragu, Basolan Sociedad Microcooperativa, Sergio Hernandez, José Luis Saragüeta, Ion Erneta eta Mendi Lan.

5.- TELEBISTA KANALAK HARTZEKO EKIPOAK JARTZEKO SARE KOMUNA ERATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA AURITZ, ARTZIBAR, ERROIBAR, LUZAIDE, OROTZ-BETELU ETA ORREAGAKO UDALEN ETA AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIAREN ARTEAN.

2017an bilerak egin dira Auritz, Artzibar, Erroibar, Orotz-Betelu, Orreaga, Luzaide eta Aezkoa biltzen duen eremuan gaur egun hartzen ez diren telebista-kanalak hartzeko aukerak aztertzeko, gehienbat euskara sustatzeko eta normalizatzeko asmoz euskeraz soilik edo gehienbat emititzen duten kanalak hain zuzen ere, eta aldi berean horietako kanal batzuk hartzeko gaur egun dauden arazoei irtenbidea emateko, eta proposamenak aztertu ondoren adostasun batera iritsi da interesekoak izan daitezkeen kanalak hartzeko.

Proposatu da eskualdeko toki entitateen artean Lankidetzaren Hitzarmena sinatzea, parte hartuko dutenen eskubide eta betekizunak zehaztea baita jarriko diren instalazioak adjudikatu eta kudeatzeko modua ere.

Sinatuko den Hitzarmena uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 70. Artikuluan toki entitateen arteko elkarlanaren arautzean oinarritzen da eta haren helburua da aipatutako eskualdean Euskal Telebista 2 (ETB2), Hamaika telebista, Xaloe Telebista eta Nafar Telebista-11(NTB11) telebista-kanalak hartzeko azpiegiturak jartzeko lanen adjudikazioa baita horien mantentzea eta toki entitate sinatzaileen finantzazioa. Hitzarmen honetatik eratorriko diren azpiegitura eta ekipamenduen erabilera toki entitate sinatzaile guztientzat izanen da. Edozein entitatek

Hitzarmenetik atera nahiko balu telebista-kanalak hartzeko azpiegitura eta ekipamenduen jabetza edo erabilera erreklamatu edo horiekiko eskubideei uko egiten diela kontsideratuko da. Aipatutako kanalak hartzeko beharrezkoa da ekipamenduak jartzea Ibañetan, Bizkarretan, Iturtan, Imizkotzen (Nagore hemen sartuta), Orotz-Betelun eta Luzaiden.

Instalazioa Electro Kaxerna eta Ipartel enpresek egingen dute, errandako telebista-kanalak hartzeko beharrezkoak diren aurrekontuan aipatutako ekipamendu guztiak jartzea (azaroaren 21eko PR24/2017), bai eta udalerrri guztietan modu egokian hartzeko proba eta egokitzapen guztiak egitea ere.

Instalazioa egiteko toki entitate sinatzaileek ETB2 kanal analogikoa itzaltzea onesten dute, TDT sistemaren bidez ordezkatzeko, eta gainerako kanalak ere TDT sistemaren bidez gaineratuko dira: Xaloa, Hamaika Telebista eta Nafar Telebista –11.

Ekipamendua instalatzeko eta martxan jartzeko behar diren baimen guztiak enpresa adjudikaziodunek bideratuko dituzte eta haiekin sinatuko diren dokumentuetan betekizun hori adieraziko da.

Ibar guztietan aipatutako telebista-kanalek estaldura egokia izateko jarri beharreko instalazioaren zenbateko osoa hamabost mila eta hogeita hamabi euro eta berrogeita hamairu céntimo da (15.032,53 €), zergak eta instalazioaridagozkion gainerako gastuak barne,

Entitate sinatzaileek instalazioari dagozkion gastuak bere gain hartuko dituzte, beti ere ezarritako aurrekontua baino gehiago ez badira, honako irizpideen arabera:

1.- Kostuaren %50 (zazpi mila bostehun eta hamasei euro eta hogeita zazpi céntimo) (7.516,27 €) toki entitate guztien artean hainbanatuko da, hau da, 1.073,76 € hitzarmena sinatuko duten zazpi entitateetako bakoitzak ordaintzeko.

2.- Gainerako %50 (zazpi mila bostehun eta hamasei euro eta hogeita zazpi céntimo) (7.516,27 €) 2016ko biztanle erroldan entitate bakoitzak zeukan biztanle kopuruaren arabera banatuko da, hortaz, Erroibarko Udalak 2.148,67 € ordainduko ditu.

Erroibarko Udalak guztira 3.222,43 € ordainduko ditu.

Instalazioaren bermea jarri ondoko bi urtez luzatuko da eta ekoizpen edo instalazioaren akats guztiak barne hartuko ditu; kanpo geldituko dira fenomeno elektrikoek sor ditzaketan matxurak, bandalismo ekintzen ondoko matxurak edo instalazioa egin duten enpresetakoak ez direnek maneiatzeagatik sor daitezken kalteak.

Hitzarmenak sinatzen denetik hartuko du indarra, eta urtero luzatuko ahalko da; edozein Entitatek hitzarmena sala dezake gainerako entitateei hilabete lehenago jakinaraziz.

Alkateak, de Potestad jk., argitu du Nafarroako Gobernuak aipatutako kanalak ofizialki har daitezkeela onartuko balu, instalazioa bertze kanal batzuk hartzeko erabili ahalko litzatekeela, eta Gobernuari eskatuko zaiola instalazioen mantentze gastuez arduratzea.

Ariben 2018ko urtarrilaren 23an egindako bileraren ondoren Aezkoako Batzarre Nagusiak igorri duen Hitzarmen proposamena aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Telebista kanalak hartzeko beharrezko tresneria jartzeko sare comuna eratzeko Lankidetzak Hitzarmena sinatzea Auritz, Artzibar, Erroibar, Luzaide, Orotz-Betelu eta Orreagako Udalen eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren artean, honako baldintzak ezarriz:

- Beti ere aipatutako toki entitate guztiek parte hartu, sinatu, lagundu eta norberaren ekarpen ekonomikoa onartzen badute eta Erroibarko herri guztietan ikusten badira.

- Erroibarko Udalak bere gain hartuko duen gastua osotara 3.222,43 € dira, ezarritako irizpideen arabera, beti ere ezarritako aurrekontuan igoerarik gertatzen ez bada.

- Hitzarmenak iraun bitartean tresneriaren konponketa, ordezkatzeko edo mantentze gasturik suertatuz gero, alde aurretik Erroibarko Udalaren erabakia beharrezkoa izanen da.

2) Alkateari, de Garralda j., ahalmena ematea Hitzarmena sinatzeko Erroibarko Udalaren izenean eta hura ordezkatzeko.

3°).- Erabakiaren berri Aezkoako Batzarre Nagusiari eta Artzibar, Auritz, Luzaide, Orotz-Betelu eta Orreagako Udalei ematea, hitzarmenean parte hartzen dutelako.

6.- HIRIGINTZA:

6.1.- JOSE MARIA ECIOLAZA OCHOAK AURIZBERRIN, 12 POLIGONOKO 56 LURZATIAN SUSTATU DUEN UDAL PLANAREN EGITURAZKO ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta Jose Maria Eciolaza Ochoak Aurizberrin, 12 poligonoko 56 lurzatian sustatu duen Udal Planaren egiturazko aldaketa puntualaren tramitazioari buruzko informazioa eman du; 2016ko uztailaren 27an Erroibarko Udalak hasiera batean onetsi zuen Erroibarko Udal Planaren egiturazko aldaketa puntuala (162 NAO 2016/08/23), hura jendaurrean egon den bitartean ez da alegaziorik aurkeztu, proiektua idatzi zutenek, Jesús Aramendia Pardok eta Alberto Aldave Martinezek, Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren errekerimenduei erantzuna eman diete eta Udalaren hirigintza zerbitzuen (Nasuvinsa) informe faboragarria dagoenez, aldaketa behin-behineko onetsi behar da.

Nasuvinsaren informea faboragarria denez, aho batez erabaki da:

1.- Jose Maria Eciolaza Ochoak Aurizberrin, 12 poligonoko 56 lurzatian sustatu duen Udal Planaren aldaketa puntuala, Jesus Aramendia Pardok eta Alberto Aldave Martinezek 2017ko urtarrilaren 17an idatzitako proiektuaren arabera, onartzea eta testu moldatua izeneko dokumentua behar bezala bideratua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta toki Administrazioiko Departamentura igortzea, behin betiko onesteko.

2.- Txosten bideratua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta toki Administrazioiko Departamentura igortzea, behin betiko onets dezaten, bai eta hirigintza txostenak ere.

6.2.- ERROIBARKO UDAL PLAN OROKORRAREN PARTAIDETZA PLANAREN ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta azaldu du Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako Foru Legearen testu moldatuak bere 71.1. artikuluan ezarri duela Plana bideratu bitartean partaidetza prozesua antolatu dela, Lurraldearen Antolakuntzako Estrategia eta Ereduaren tramitazioan zein Udal Hirigintza Planaren tramitazioan, Udal Plan Orokorra idatzi baino lehen Udalak onetsi duen Partaidetza Planean ezarritakoaren arabera. Plana idatziko duen taldeak aurkeztutako Partaidetza Plana, Udal Plana idazteko adjudikazio prozesuan taldeak aurkeztu zuen bera da, orokorrean, eta hori izan zen Udalak aukeratu zuena, aldaketa txiki batzuk barne, eta, hortaz, osoko bilkurak onartu behar du.

Horiek horrela, plana berrikusita, eta kontuan hartuta bere udalerriko diseinuan eta etorkizuneko garapenean modu aktiboan parte hartzeko bizilagunei aukera emateko beharrari erantzungo dion dokumentua dela, udalerraren garapen jasangarriaren oinarria izan dadin eta hori ongi egiten bada plan bera onestea erraztuko duenez, aho batez erabaki da Erroibarko Udal Plan Orokorraren Partaidetza Plana 35/2002 Foru Legearen arabera onartzea.

7.- ERROIBARREN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du Euskarabideatik jakinarazi dutela Euskararen Ordenantzaren 28. artikulua aldatu behar dela ez baitu legearen bat egiten eta horiek horrela, Euskara Teknikariak, 28. artikulua idazketa berria prestatu duela aurrekoaren ordezkatzeko, eta hau dela:

“28. Artikulua.

Udalak toponimiaren gaineko ikerketa eta hedapena sustatuko ditu. Hori horrela, toponimia aintzat hartuko du herrietako kale eta plazen izendapen ofiziala zehazteko eta gainerako hiri-elementuei eta era guztietako entitateei izena emateko. Horretarako, Toponomia Ofiziala oinarri izanen du; betiere, Euskaltzaindia Udalaren aholku-emailea izanen da”.

Hortaz, aho batez erabaki da Erroibarren euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren aldaketa hasiera batean onartzea eta NAO on argitaratzea.

8.- PROIEKTOREA ETA PANTAILAREN EROSKETA ONARTZEA

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta azaldu du osoko bilkurako aretorako proiektorea eta pantaila erostea beharrezkoa denez, aurrekontua eskatu diola Aezkoanet Informatikari eta 520,01 euro gehi BEZ dela.

Martinez Rey zinegotziarekin ados agonik, aho batez erabaki da aurrekontu hori onartzea eta proiektorea eta pantaila erostea.

9.- ALTSASUKO FERIETAN, 2016KO URRIAREN 15EAN, GERTATUTAKOARI BURUZKO MOZIOA, EH BILDU ERROIBAR TALDEAK SUSTATUA

Ondoren Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta 2016ko urriaren 15ean Altsasuko Ferietan gertatutakoari buruzko mozioaren edukia azaldu du; mozio hori Altsasuko Udalak onetsi du, NUKFan mahaigaineratu da eta Nafarroako Gobernuak onetsi du, baita hura osatzen duten lau alderdiek ere, eta bere taldeak Udalari aurkeztu dio, onets dadin.

Hona hemen mozioaren edukia:

MOZIOA

Justifikazioa:

2016ko ferien bezperan, urriaren 15ean jazotako gertakariak direla, eta aurtengo apirilaren 16an Audientzia Nazionalen izango den ahozko epaiketaren atarian gaudenean, gure kezkarik handiena aurkeztu nahi dizuegu Altsasuko 8 gazteri ezartzen ari zaien neurrigabeko prozedura judizialarengatik. Gazte horientzat 375 kartzela-urte eskatu dituzte gertakariak terrorismo delitutzat kalifikatu dituztelako; horietako, hiruk, gainera, prebentziozko presondegian 400 egun baino gehiago daramate Madrilgo hainbat espetxetan.

Azpimarratu behar dugu 2017ko martxoaren 23an Nafarroako Probintzia Auzitegiak helegitea ebatsi zuela. Kaleratutako autoan honakoa adierazi zuen: “ez zeudela arrazoizko zantzurik ustezko terrorismo delitua gertatu zela ondorioztatzeko”. Horren ondorioz, epaiketa Nafarroan egitea eskatu zuen.

Nabarmendu nahi dugu ere, Barne Ministerioko iturrien arabera 9.571 atentatu kasu kontabilizatu zirela 2016an. Horietatik, terrorismo atentatu gisa kalifikatu den lehenengoa eta bakarra Altsasukoa izan da.

Agerian jarri nahi dugu ere, denbora tarte luze honetan oinarritzko hainbat eskubide urratu direla, hala nola: errugabetasunaren printzipioa, epaile naturala eta inpartziala izateko eskubidea, eta, besteak beste, defentsarako eskubidea. Abokatuek salatu dute instrukzio epaileak akusazioaren bertsioa baino ez duela aintzat hartu. Horrez gain, ez du egile neutral batek egin akusazioaren txostena, kausan parte duen Guardia Zibilak baizik. Horrez gain, komunikabideek epaiketa paraleloa egin dute gure herriaren errealtatea desitxuratuz. Gauzak horrela, zuzenbidean adituak diren juristek adierazi dute legeen gehiegizko erabilera baten aurrean gaudela, NBEko Giza Eskubideen errelatoreek aurrez salatu izan duten bezala.

Gainera, defentsari ukatu dizkiote proposatutako proba ia gehienak: testiguak, dokumentuak eta perizialak.

Prozesu honek guztiak izan duen bilakaera ikusita ondorioztatzen dugu geratutakoak larriki kaltetzen dituela gizarte demokratiko eta Zuzenbide Estatu batek gidatu beharko lituzkeen oinarritzko printzipioak, eta hondatzen duela hiritarrak babestu beharko lituzkeen segurtasun juridikoa.

Eta gaia eztabaidatu ondoren, aldeko lau botoz (Juanarena Apestegua, Martinez Rey, Urtasun Vidondo eta Martinez Choperena zinegotziak), bi abstentzioz (Villanueva Azcarate eta Echamendi Hernandez zinegotziak) eta aurkako boto batez (Garralda Erro), Udalaren osoko bilkurak

ERABAKI DU:

1. Erroibarko Udalaren osoko bilkura atxikitzen da Iruñean apirilaren 14an 17:30ean deituriko manifestazio deialdira, “Altsasu Gurasoak” eta “Altsasukoak Aske” plataformak elkarrekin deitu dutena. Manifestazio horrek giza eskubideen, askatasunaren eta berme demokratikoen aldeko konpromisoa erakusteko asmoa du.
2. Herritarrei manifestazioan parte hartzeko deia egiten die Udal honek.
3. Akordio hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraziko dio udal honek, eta parte hartzeko gonbidapena luzatuko die tokian tokiko erakunde guztiei, hala nola bat egin dezaketen bestelako erakundeei ere.
4. Hartutako akordioa hau komunikabideei eta antolatzaileei (Altsasu Gurasoak eta Altsasukoak Aske) jakinaraziko die.

10.- TORTURARI BURUZKO MOZIOAREN ONESPENA, ERROIBAR EH BILDU TALDEAK SUSTATUA

Jarraian Martinez Rey zinegotziak 1960 eta 2014 urteen artean gertatu diren tratatu txarren eta torturen inguruko mozioari buruzko informazioa eman du, eta esan du Nafarroako Gobernuak gaia balioan jarri nahi duela deialdi baten bidez Paco Etxeberriaren taldeari diru-laguntza emateko Nafarroan izan diren tortura kasuak azter ditzan. Modu berean esan du Espainiatik ez dutela ikerketa lan hori egitea nahi eta, hortaz, toki entitateei eskatzen zaie horiek egitea eskatzea Nafarroako Gobernuari, laguntza emanez. Ez dira kalte-ordainak eskatzen baizik eta gertatu dena argitzea. Martinez Choperena zinegotziak dio Giza Eskubideen Europako Epaimahaiak, Estrasburgoko Epaimahaiak, epaia eman duela horrelako gertakariengatik gazte batzuei kalte-ordainak emanez.

Juanarena jk. hitza hartu du eta esan du alde zurretik gertatu diren tortura eta kalte psikologikoengatik barkamena eskatu beharko litzatekeela, eta hori egin bitartean berak ez duela bozkatuko. Villanueva, Echamendi eta Garralda jaunek diote mozioa onestearen aurka bozkatuko dutela. Martinez Rey zinegotziak azaldu du EH Bildu ez dela ezker abertzalea soilik, eta ez Eusko Alkartasunari ezta Aralarri ere, ezin zaiela deus ere leporatu, demokratikoak eta pakezaleak baitira, baina hala ere izan diren indakeria mota guztiak aitortzea nahi dute. Modu berean sinestezina iruditzen zaio mozioak aurrera ez egitea.

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aurkako hiru botoz (Villanueva, Echamendi eta Garralda), abstentzio batez, Juanarena, eta aldeko hiru botoz (Martinez Choperena, Martinez Rey eta Urtasun Vidondo) eta alkatearen kalitatezko botoari esker, EH Bildu Erroibar Taldeak aurkeztu duen mozioa ez onartzea.

Gai zerrendatik kanpo eta urgentziaz gai hau sartzea erabaki da aho batez:

Ikusirik Toki Administrazioako Zuzendari Orokorrek abenduaren 29an emandako 781/2017 ebazpenaren bidez Agoitz, Artzibar, Longida, Orotz-betelu, Ibargoiti, Izagaondoa, Lizoain-Arriagoiti, Elo, Untziti eta Urrotzeko udalerrien arteko mugak berreskuratu eta hobetzeko lanei hasiera eman ahal zaiela esanez.

Ikusirik lan horiek inguruko bertze udalerriei ere eragiten dietela.

Ikusirik udalerrri horietako bat gurea dela, muga egiten baitu Artzibar eta Lizoain-Arriagoitirekin.

Ikusirik beharrezkoa dela lan horietan laguntza eman eta berrikusteko batzordea osatzea.

Aho batez erabaki da:

- 1.- Mugak berreskuratu eta hobetzeko lanetan laguntzeko udal batzordea osatzea.
- 2.- Batzorde horretako kide hauek izendatzea: Enrique Garralda Erro, Batzordeburua, Alvaro Villanueva Azcarate, Jokin Martinez Choperena, Eduardo Urtasun Vidondo, Xabier Zia Urrutia eta Marisol Ezcurra Irure, idazkaria.
- 3.- Hartutako erabakia Tokiko Administrazioako Departamentuko TOKI ADMINISTRAZIOKO ANTOLAKUNTZA ATALari igortzea, jakinaren gainean egon dadin eta haren ondorioetarako.

11- BESTERIK

Alkateak, Garralda jk., honako informazioa eman du:

Libreki erabaki beharreko inbertsioak: Udaletxeko aparkalekua

Libreki erabaki beharreko inbertsientzako diru-partidaren bidez egin behar diren lanen egokitzapenari buruz, jakinarazi da premia gehin duena udaletxeko aparkalekua dela, oso gaizki baitago, eta hori dela diru-partida horrekin egingen dena.

Langabetuak

Jakinarazi da oraindik ez dakigula noiz argitaratuko den langabetuak kontratatzekeo deialdia. Aipatu da zinegotziek ezin dutela horretan parte hartu.

Ehiza

Ehizari dagokionez eta basurdeek egiten ari diren kalteak kontuan hartuta, ehiztari elkarteek idazki bat prestatu dute kontzejuetako presidenteeke ere sinatzeko; hroretan eskatzen zaio Nafarroako Gobernuari basurdeak kontrolatzeko eta abeltzainei zein nekazariei laguntzeko neurriak hartzea. Azkenik jakinarazi da badaudela eginak indarkeriaren gaineko bide-seinaleak eta jarriko direla.

12. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du EH BILDU ERROIBAR udal taldearen izenean alkateari eta bere gobernu taldeari honako galderak egin dizkiola, eta alkateak, Garralda jk, erantzun dio idatziz erantzungo diola.

Galderak:

- *Ba aldago garrantzizko informaziorik Aurizberrin, Mendianduin, dagoen meatze-proiektuari dagokionez?*
- *Zertan da Aurizberriko Urrobi aldeko UGPS? Zenbat ordaindu du Udalak gaur egun arte proiektua egiteko? Zer asmo du ETIaren asmoa gai honi dagokionez?*
- *Ba al dakigu zenbat ordaindu duen osotara Udalak Zilbetiko Antzeri meatze-proiektuaren gainean auziteg gorenaren aurrean jarritako errekurtsorengatik? ordaindu da?*
- *Zein da Ama Ibañeta zahar egoitzaren egungo egoera? aurreratu al da zerbait?*
- *ETI taldeak ba al du gure dermioan dauden monumentu megalitikoak balioan jartzeko ekimen zenbait martxan jartzeko asmorik?*

- *Gobernu taldeak, noiz egingen ditu Sorogaingo erreketak? alkateak jakinaraziko dio oposizio taldeari erreketak egingen direnean lagundu dezaten?*
- *Ba aldu ETI taldeak udal bideak garbitzeko asmorik aurtzen?*
- *Jakin dugu badagoela diru-laguntza deialdi bat 21 Agendarako. Zergatik ez zaigu horren gaineko informaziorik ematen eta noiztik ez da inguruko ibarrekin elkartzen tokiko garapen estrategiari dagozkion gaiak lantzeko?*
- *Jakin nahi dugu zerbitzu anitzetako langilearen maila igoera egin ondoren, Udalak prestatu duen edozein langilek egindako aparteko orduak justifikatzeko protokoloa.*
- *Legegintzaldiaren hasieran kontzejuek eskatzen dituzten lanei buruz ezarritako protokoloa betetzen ari den jakin nahi dugu. ba al dugu kontzejuek udalari eskatzen dioten lanen zerrendarik?*
- *Ba al daki Gobernu taldeak Aurizberriko araztegiak dituen arazoak? Zein da ETI taldeak egingarriena deritzon konponbideari? Ohartzen al dira arazoaren ondorioaz?*
- *Zein da ZABren egoera? osoko bilkuran berretsitako proposamenean aurreratu al da zerbait? administrariak batasunean sartzea landu al da?*
- *Duela gutxi jakin dugu Urnizan bizi direnek jasan dute egoera, bizilagun batek gutxienez bere karabana aparkatzeagatik isuna jaso baitzuen. Alkateak edo gobernu taldeak ba al dakite zerbait Urnizari buruz? Urnizako bizilagunekin izandako bileraren ondoren Udalak jaso al du diputazioti proposamen zenbait? bizilagun horiek eskatu al diote zerbait udalari azkeneko denboraldian?*
- *Udalak kultur eta kirol jarduerentzako ematen dituen diru-laguntzei dagokienez, zergatik ez dira diru-laguntza horiek modu antolatuan ordaintzen? Zergatik ordaintzen dira horren berandu diru-laguntza horiek, horrela baldin bada? Ohartzen al da gobernu taldea irabazi asmorik gabeko elkarteek ordainketak berandutzen direnean zailtasunak dituztela kontuak egiteko? Ohartzen al da gobernu taldea elkarte horiek modu altruistan lan egingen ez balute Udalak eta ibarrak ez luketela kultur eta kirol jarduerarik izanen?*
- *Ba al du gobernu taldeak martxoaren 8rako proposamen zenbait? egokia iruditzen al zaio Udalari emakumeen nazioarteko egunean kontzentrazioa egitea?*

EH BILDU ERROIBAR taldeak erantzun horiek idatziz jaso nahiko lituzke.

Hortaz gain, garrantzizkoa iruditzen zaigu galdetzen dugun guztiari buruzko informazioa ematea, eta beharrezkoa balitz gobernu taldeak emango dizkigun erantzunak frogatzeko dokumentazioa ere. Halaber, inportantea da erantzuna eta dokumentuak mezu elektronikoko bidez igortzea, dokumentuak eta eskatutako informazioa inprimatzea beharrezkoa ez den gastua baita.

Esker anitz.”

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 21:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.